

Broseta Estatu Kontseiluko kidea tirokatu eta hil dute Valencian

Poliziak ETAko 'komando ibiltariari' leporatu dio atentatuaren erantzukizuna

Bi gaztek —emakumea eta gizona— tiroz hil zuten atzo Valencian Estatu Kontseiluko kide, UCDko senadore eta Autonomietarako Estatu idazkaria izandako Manuel Broseta katedraduna. Atentatua goizeko hamar t'erdia inguruan izan zen Valenciako Unibertsitatearen ondoan. Poliziak ETARI egotzi dio atentatuaren ardura.

VALENCIA

Goizeko hamarrek inguru ziren, bi gazte Valenciako Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatek orduan irtean ari zen Manuel Brosetarengana hurbildu eta ezer esan gabe tiro bat bota ziotenean. Bala lepegainetik sartu eta ezker begitik ateratzen zen, eta Brosetaren bapateko heriotza eragin zuen. UCDko senadoreari tiro egin ahal izateko, atentatuaren egileek beren aurrean oinez zihoan neska gaztea lurrera bota zuten. Atentatua egin ostean, bi ezezagunek alde egin zuten gertu aparkaturik zegoen kotxe gorri batean. Brosetaren gorpua lurrean geratu zen odol putzu baten erdian, harik eta ambulanziaz Valencian Ospitale Klinikora eraman zuten arte.

KOTXEAK EZTANDA EGIN Atentatua gertatu eta ordu gutxitara, Udaltzaingoak atentatugileek ihes egiteko erabilitako kotxea —Barcelonan lapurtutako Volkswagen Polo— aurkitu zuten Amadeo de Saboya eta Aragon kaleen arteko bidegurutzean. Udaltzaingoak zona inguratu egin zuten eta Polizia Nazionaleko TEDAX taldekoei deitu zien (lehergailuak indargabetezko taldea). Baina espezialistek ezer egin aurretik, kotxeak eztanda egin zuten eta ehun bat metrora zegoen polizia nazionala besoan zauritu. Izenik eman nahi izan ez zuten poliziak, «kotxetik urrun» zegoela baieztatu zuten eta kotxeak «leherkari asko zuela» gaineratu. Leherketaren ondorioz, kale berean aparkaturik zeuden hainbat kotxek kalte- turik izan ziren.

ESTATU IDAZKARI IZANA Polizi iturrien arabera ETA izan da atentatu horren arduraduna «egiteko moduak hala erakusten duelako». Poliziaren ustetan Jose Luis Urrusolo Sistiagak gidatzen duen komando mugikorra izan da, hain zuzen, Broseta hil duena. Jose Luis Urrusolorekin batera zihoan emakumea Idoia Lopez Riaño izan daiteke, Poliziaren ustez. Poliziak azkenaldian egindako beste zenbait atentatu leporatzen dizkio komando honi. Horien artean, hilaren 8an Arturo Anguera Valles Aire Armadako komandantearen kontrakoa.



Manuel Broseta Pont. EFE

✓ Polizi iturrien arabera ETA izan da atentatu horren arduraduna «egiteko moduak hala erakusten duelako».

Manuel Broseta Bañeres (Alacant) herrian jaio zen eta 60 urte zituen. 1964az gero, Merkatal Zuzenbideko katedraduna zen Valenciako Unibertsitatean. Francoren diktadura amaitzean, Pais Valenciako Batzorde Demokratikoa (1975-1977), Taula de Forces Politiques i Sindicals del Pais Valencia eta Konpetentziaren Defentsarako Elkarte Espainiarra sortu zituen. 1979tik 1982ra senadore izan zen UCD Gobernuan



Unibertsitatearen ondoan egin zioten tiro Brosetari. EFE

zegoen alderdiaren eskutik. 1980an Elkarte Autonomikoetarako Estatu idazkaria izendatu zuten eta zenbait legeen ponentea izan zen eta garai batean Efe agentziaren kontseilari delegatua izan zen.

Politika mundua utzita, Broseta legegintza eta kulturari aritu zen. Valenciako Legegintza Akademiako kidea eta aldizkari kultural askotako sortzaile izan zen. Valenciako hizkuntz borrokan artekaritza lana egi-

ten duen Kultura Kontseiluaren buru zegoen eta iturri ezberdinen arabera, Estatu Kontseiluko kide zen. Estatu Kontseilua goi mailako instituzio aholkulari bat da, esate baterako, Konstituzioaren aldaketa baten aurrean bere iritzia ematen duena. Tomas de la Quadra, Esopainiako Justizia ministroa Estatu Kontseiluko presidentea izandakoa da. Gorpua ostiralean errauts bihurtuko dute, familiaren iturriek adierazi zuten.

Mayor Oreja: «Atentatu hauen bidez gure gizartea desorekatzea nahi dute»

DONOSTIA

Valenciako atentatuaren berri izan ondoren, alderdi politikoen eta legegintza munduko pertsonalitate ugarien gaitzespenak etorri ziren. Senatuak ere Manuel Brosetaren heriotzarengatik protesta egin nahi izan zuten eta ixilunea gorde zuten bere omenez.

Jaime Mayor Oreja EAEko PPko lehendakariak gogor salatu zuen atentatua eta «HBK berdin egiteko» eskatu zuen, bestela, «Broseta hil dutenek merezi duten hiltzaile izen bera mereziko luketelako». Gobernu ordezkaria zenean ezagutu zuela adierazi ondoren, Mayor Orejak esan zuenez, «badirudi azkenaldian ETAK aukeratutako hilketak egingo zituelako iragarpena betetzen ari dela, beste garai batzuetan egindakoaren antzera». Atentatu hauen bidez, «gure gizartea desorekatzea bilatzen dute» PPko buruaren iritziz. Ajuria

Eneako Hitzarmena eta «alderdi demokratikoei» ETAREN aurkako neurrien gogortzea eskatu ondoren, Mayor Orejak «euskal herritarrek Brosetari asko zor diogula» gogoratu zuen, «elkarrizketarako joera erakutsi zuelako».

EAJ: «ARAZO PSIKIKOA» Francisco Fernandez Ordoñez Atzerri ministroa «erabat atsekabaturik» zegoela adierazi zien komunikabideei, Brosetaren heriotza jakin zuenean. Felix Crespo Valenciako Zuzenbide Fakultateko dekanordeak ukatu egin zuten «atentatu terrorista izan daitekeenik, arrazoi politikoengatik hil dutela sinistea ezinezkoa iruditzen zaigulako». Modesto Fraile UCDko kide izandakoak «guztiz minduta» zegoela adierazi zuen, «demokrazia eta askatasuna ezartzeko lan handia egin zuten gizona galdu egin dugulako».

EAJk gaitzetsi egin zuen Valen-

ciako Manuel Brosetaren heriotza ekarri zuen atentatua eta gaineratu zuen, ETA izan dela baieztatu ondoren, «zentzugabekeria bat gehiago» izango litzatekeela eritzi zion.

«ETAK atentatuak egiteko ahalmena umeak, emakumeak, agureak edo eragin politiko gabeko katedradunak hilda frogatu nahi badu, zoramenaren eta arazo psikiatrikoaren eremuan sartzen da, ordenu publikoaren edo arazo politikoaren eremuan baino», adierazi zuen EAJk atzo igorritako ohar baten bidez.

Alderdi jeltzaleak «oroimen hungigarria» opa zion Manuel Brosetari, Estatuko idazkaria izan zen garaian arazo autonomikoarekin sentsibilitate handia izan zuela ziurtatuta.


Eusko Alkartasunak ere «gaitzespen gogorrena» adierazi zuen atentatua dela eta, eta oharrean agertu zuen «ekintza terrorista hauek gure herriaren gehiengoak desiratzen duen bake gogoan aurka» doazela.

Valenciako politikariek «harridura» adierazi zuten

VALENCIA

Brosetaren heriotzak «harririk» utzi zuela onartu zuen Jose Miguel Orti Bordas PPko senadoreak eta «ezertarako balio ez zuela» gaineratu. Orti Bordasek baieztatu egin zuen PP Brosetarekin negoziatzen ari zela, azken hau Valenciako Lehendakariarako hautagai eskuindarra izateko. Rodrigo Rato Kongresuko bozeramale popularraren esanetan, «argi geratu da atentatu honekin, ETAREkin negoziatzeko itxaropen guztiak alde batera utzi behar direla».

Joan Lerna Valenciako lehendakariak «Broseta elkarbizitzaren alde borrokatu zuten gizona» izan zela esan zuen. Atentatua «ulertezina» iruditzen zitzaioela azpimarratu zuen Lerna, «Brosetaren negoziatioaren jokaerak inoren gorrotoa sor zezakeenik» uste ez zuelako. Atentatuaren arduraduna nor izan den ez zekiela esan zuen Valenciako lehendakariak, baina «zigorrik gabe geratuko ez dela» gehitu zuen. Batzorde Konstituzionaleko lehendakari ohia eta hildakoaren alderdikide izandako Emilio Attardek «nazkagarritzat» jo zuen atentatua. «Broseta legea, zuzenbidea, justizia, ontasuna eta elkarbizitza zelako. Guzti hau bere heriotzarekin batera hila izan da». Horrelako ekintzek «etsitzeko gogo» ematen ziotela gaineratu zuen. Valenciako Udalak ezohizko batzarra egin zuten atzo arratsaldean, atentatuaren berri izan ondoren al-kateak deituta.



Jaime Mayor Oreja. EFE

Horregatik, «ETA eta horren inguru politikoari» dei egin zien, ekintza bortxatzaile oro bertan behera uzteko.

EE: Euskadiko Ez-«HERIOTZA ESPORTATZEN» kerrak Valencian atentatua gaitzetsi eta hilketa berri honekin «heriotza, krimena eta lokian tiro koldarra» baino ez dugula «esportatzen» ematen duela eritzi zion.